# Iragarpenak
# Anuncios

## Obra eta Zerbitzuen Enkante eta Lehiaketak
## Subastas y Concursos de Obras y Servicios

**HERRIZAINGO SAILA**

LEHIAKETA PUBLIKOA. Iragarpena, Eusko Jaurlaritzako komunikazio sarerako den F.M. irrati eta telebistarako konmutazio automatikozko horniketa kontratatzeko dena. (Esp. Zk.: C-188/92). 10073

LEHIAKETA PUBLIKOA, Eusko Jaurlaritzako Komunikazio Sarerako F.M. irrati eta telebista ekipoen horniketa kontratatzeko dena. (Esp. Zk.: C-187/92). 10074

**DEPARTAMENTO DE INTERIOR**

CONCURSO PUBLICO para la contratación del suministro de conmutación automática para radio F.M. y T.V., para la Red de Comunicaciones del Gobierno Vasco. (Exp. N.º: C-188/92). 10073

CONCURSO PUBLICO para la contratación del suministro de equipos de radio F.M. y T.V., para la Red de Comunicaciones del Gobierno Vasco. (Exp. N.º: C-187/92). 10074

# Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak
# Disposiciones Generales del País Vasco

**HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA**

**3096**

277/1992 DEKRETUA, urriaren 13koa, Euskal Autonomi Elkartearen Lurraldea Antolatzeko Batzordearen egitekoak, osakera eta iharduketa-erregimena ezartzen dituen Dekretua aldatzen duena.

Euskal Autonomi Elkartearen Lurraldea Antolatzeko Batzordearen egitekoak, osakera eta iharduketa-erregimena ezartzen dituen urriaren 2ko 263/1990 Dekretuko 6. atalean, Batzorde horren Osoko Bilkuraren osakera finkatzen da.

Euskal Autonomi Elkartearen Administrazioko Sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta ihardun-arloak finkatzen dituen urriaren 2ko 525/1991 Dekretuaren eraginez eta Hirigintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa ezartzen duen abenduaren 10eko 681/1991 Dekretuaren eraginez, ezinbestekoa da Euskal Autonomi Elkartearen Lurraldea Antolatzeko Batzordearen Osoko Bilkuraren osakera aipatutako Dekretuetatik eratorritako administrazio-egitura berrietara egokitzea.

Horien indarrez, Hirigintza eta Etxebizitza Sailburuak proposatuta eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1992ko urriaren 13an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

*Atal bakarra.–* Euskal Autonomi Elkartearen Lurraldea Antolatzeko Batzordearen egitekoak, osakera eta iharduketa-erregimena ezartzen dituen urriaren 2ko 263/1990 Dekretuko 6. atalaren 1. idazatia aldatu egiten da, orain azaltzen den beste idazkera honekin ordezkatuta:

**DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y VIVIENDA**

**3096**

DECRETO 277/1992, de 13 de octubre, por el que se modifica el Decreto por el que se establecen las funciones, composición y régimen de funcionamiento de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco.

El artículo 6 del Decreto 263/1990 de 2 de octubre, por el que se establecen las funciones, composición y régimen de funcionamiento de la Comsión de Ordenación del Territorio del País Vasco, establece la composición del Pleno de la referida Comisión.

El Decreto 525/1991, de 2 de octubre, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de la misma y el Decreto 681/1991, de 10 de diciembre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Urbanismo y Vivienda, hacen preciso adaptar la composición del Pleno de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco a las nuevas estructuras administrativas derivadas de los Decretos mencionados.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Urbanismo y Vivienda, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en reunión celebrada el 13 de octubre de 1992.

DISPONGO:

*Artículo único.–* Modificar el apartado 1 del artículo 6 del Decreto 263/1990, de 2 de octubre, por el que se establecen las funciones, composición y régimen de funcionamiento de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, sustituyéndose su actual redacción por la siguiente:

«Euskal Autonomi Elkarteko Lurraldea Antolatzeko Batzordearen osoko Bilkura, honako era honetan osatuko da:

Lehendakaria: Hirigintza eta Etxebizitza Sailburua.

Lehendakariordea: Hirigintza eta Lurralde Antolaketa Sailburuordea.

Bokalak:

a) Etxebizitza eta Arkitektura Sailburuordea edo bere Sailordetzako Zuzendari bat, ordezkotzarako izendatuta.

b) Hirigintza eta Etxebizitza Saileko Lurralde Antolaketa Zuzendaria eta Hirigintza Zuzendaria.

c) Ondoren aipatzen diren Sailetako ordezkari bana, baina Sailburuorde edo Zuzendari kargua izan behar dute: Industria eta Energia Saila, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Osasun Saila, Kultura Saila, Ekonomia, Plangintza eta Ingurugiro Saila, Garraio eta Herrilan Saila, Nekazaritza eta Arrantza Saila eta Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Saila.

d) Lurralde Historiko bakoitzeko Hirigintza eta Etxebizitzako Lurralde Ordezkariak.

e) Foru Aldundi bakoitzeko bi ordezkari.

f) Estatuko Administrazioaren ordezkari bat.

g) Euskal Autonomi Elkartean indarrik gehien duten Udal Elkarteen hiru ordezkari, bana Lurralde Historiko bakoitzetik».

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean Dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz, 1992ko urriak 13.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Hirigintza eta Etxebizitza Sailburua,
JOSE ANTONIO MATURANA PLAZA.

«El Pleno de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco tendrá la siguiente composición:

Presidente: El Consejero de Urbanismo y Vivienda.

Vicepresidente: El Viceconsejero de Urbanismo y Ordenación del Territorio.

Vocales:

a) El Viceconsejero de Vivienda y Arquitectura o un Director de su Viceconsejería en quien delegue.

b) Los Directores de Ordenación del Territorio y de Urbanismo del Departamento de Urbanismo y Vivienda.

c) Un representante, con categoría de Viceconsejero o Director de cada uno de los siguientes Departamentos: Industria y Energía; Educación, Universidades e Investigación; Sanidad; Cultura; Economía, Planificación y Medio Ambiente; Transportes y Obras Públicas; Agricultura y Pesca y Comercio, Consumo y Turismo.

d) Los Delegados Territoriales de Urbanismo y Vivienda de cada uno de los Territorios Históricos.

e) Dos representantes de cada Diputación Foral.

f) Un representante de la Administración del Estado.

g) Tres representantes, uno por cada Territorio Histórico, de la Asociación de Municipios con mayor implantación en la totalidad del territorio de la Comunidad Autónoma».

DISPOSICION FINAL

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 13 de octubre de 1992.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Urbanismo y Vivienda,
JOSE ANTONIO MATURANA PLAZA.